

AISIALDIKO JARDUERAK

EUSKARAZ



Kiribilka: 2-6 urte bitarteko umeei eta hauen gurasoei zuzendutako egitasmoa da. Foruen plazan izaten da, maiatzean hasi eta urrira arte (udako hila-beteetan izan ezik), ostiral arratsaldetan 17:30etatik aurrera. Antolatzaileak: Elgoibarko Izarra eta Udalaren Euskara Batzordea.

Udaleku irekiak: LH 2ra arteko haurrentzat, ekainaren azken astetik uztailaren bukaera aldera arte, astelehenetik ostiralera, goizeko 9:00etatik 13:00etara, herrian bertan. Antolatzaileak: Elgoibarko Izarra eta Udalaren Gazteria Batzordea.

Udaleku itxiak: LH 3tik LH 6ra artekoentzat, zazpi edo hamar egunetako Udaleku Itxiak, heritik kanpo. Antolatzaileak: Elgoibarko Izarra eta Udalaren Gazteria Batzordea.

Negulekuak: HH eta LH 1-2ko haurrentzat, Negulekuak, Gabonetako oporretan. Goizetan 4 orduz tailerrak eta jolasak. Antolatzaileak: Elgoibarko Izarra eta Udalaren Gazteria Batzordea.

Aste Santuko udalekuak: LH 2ra artekoentzat, Aste Santuko oporretan, Udaleku irekiak, herrian bertan. LH 3, LH 4, LH 5 eta LH 6koentzat astebeteko Udaleku itxiak. Antolatzaileak: Elgoibarko Izarra eta Udalaren Gazteria Batzordea.

Ludoteka (Gabriel Krutzelaegi 6): 5-12 urte bitartekoentzako udal zerbitzu sozio-hezitzailea. Astelehenetik ostiralera 16:30etik 19:30era.

Gaztelekua: 12-18 urte bitartekoentzat topagunea eta aisialdi gunea. Asteartetik igandera 17:00etatik 20:00etara.

Gotzon Garate Udal Liburutegia (San Frantzisko kalea 21): Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 12:45era eta 16:00etatik 20:15era. Uztailean 8:00etatik 14:00etara.

Ipuin kontalariak: Haur Hezkuntzako ikasleentzat eta LH 1etik LH 5era bitartekoentzat, hilero arratsaldeko 17.00ak aldera Gotzon Garate Udal Liburutegian.

Eskola Kirola: LH 1etik LH 6ra bitartekoentzat eskolaz kanpoko kirol jarduerak, ikasturtean zehar.

Igeriketa ikastaroak: 3 hilabetetik 3 urtera arteko haurrentzako igeriketa ikastaroak larunbat goizetan. 3 urtetik gorakoentzako igeriketa ikastaroak, astean bi saiotan.

Karatea: 6 urtetik aurrerakoentzat, astean bi saio, ikasturte osoan.

Dantza ikastaroa: 4 urtetik gorakoentzat, ikasturtean zehar, Olaizaga kiroldegian.

Xakea: Zubi Ondo xake taldeak Juan Mugerza kalez duen egoitzan, ikastaroak, ostiral arratsaldetan.

Tenisa: 6 urtetik aurrerakoentzat. Mintxetan, bi saio astean. Ikasturte osoan zehar.

Aste Santuko kirol kanpua: Goizeko 9:30etik 12:30era kirol desberdinak egiteko aukera, LH1etik LH6ra. Olaizaga kiroldegian eta Mintxetan.

Udako Kirol Kanpaina: Ekainaren bukaeratik uztailaren bukaera arte, umeentzako aerobik, eskalada, tenis eta igeriketa ikastaroak.

Kirol Udalekuak: Ekainaren bukaeratik uztailaren bukaerara, 4 asteko iraupena. Astelehenetik ostiralera, 9:30etik 12:30era, kirol desberdinak egiteko aukera. LH 1etik LH 6ra. Olaizaga kiroldegian eta Mintxetan.

Kirol Egokitua: Ikasturte osoan zehar, bi saio astean (bat uretan eta bestea aretoan). Gutxitu fisikoak edo psikikoak diren haur eta gazteentzat. LH 1etik aurrera. Olaizaga kiroldegian.

Musika ikastaroak: 5 urtetik gorakoentzat, irailetik ekainera bitartean, Musika eta Dantza Eskolan: Koroa, banda, orkestra, trikitixa, gitarra, pianoa, flauta, klarineta, tronpeteta, tronboia, gitarra elektrikoa, perkusioa, biolina, biolontxelo, panderoa eta txistua.

Euskal dantza ikastaroak: 5 urtetik gorakoei zuzendutako ikastaroak, irailetik ekainera bitartean, Musika eta Dantza Eskolan.

ANTOLATZAILIEN telefono gida:

UDAL ZERBITZUAK:

GAZTERIA SAILA, Foruen plaza z/g	943 741050
EUSKARA SAILA, Kultur Etxean	943 744366
KULTURA SAILA, Kultur Etxean	943 742158
LUDOTEKA, Gabriel Krutzelaegi 6	943 748883
GAZTELEKUA, Gabriel Krutzelaegi 4	943 743228
GOTZON GARATE UDAL LIBURUTEGIA, San Frantzisko 21	943 743525
UDAL KIROL PATRONATUA, Olaizaga Kiroldegia, San Roke z/g	943 744415

ELKARTE ETA FEDERAZIOAK:

ELGOIBARKO IZARRA, Ubitarte 4, behea	943 741626
I.BEREZIARTUA MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA, Aita Agirre plaza 4	943 742145

LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEAK,

Herri Eskola, Kalamua 8	943 740879
Elgoibar Ikastola, Ermuaranbide 7	943 744441

